

Erle Eguna blai eginda

► Eguraldiak lagundu ez bazuen ere jende dexente hurbildu zen VII. ediziora

JOSU ARANBERRI


USURBIL DV. Euriak, haizeak eta hotzak ezin izan zuten igandean erleen festa zapuztu. Aurreko urtean baino jende gutxiago gerturatu zen eguraldi txarra tarteko, baina hala ta guztiz ere jende dexente ibili zen dema-plaza eta frontoi inguruan.

Erle Egunaren VII. edizio honetan ere erletik eratorritako produktu desberdinak ikusi eta erosteko aukera izan zen dema plazan zeuden postuetan. Argizariak, ezti ezberdinak, gozogintza produktua, ukenduak... denetik topatu zitezkeen bertan eta eguraldiak ez zuen eragotzi postu hauetan zeuden salmenta.

Pilotalekuan ere hara eta hona ibili zen jendea. Erlea protagonista nagusia zen panelak ikusteko aukera izan zen bertan eta argizaiola nola egiten den zuzenean ikusteko aukera izan zuten bertaratu ziren guztiak. Gorpuzka berotzeko, berriz, Adarraga-ko txokolata eta yogurt-ak eztiarekin banatu ziren.

Euskal Herriko ezti lehiaketak ere ikusmina sortu zuen. Aduriz, Berasategi, Txapartegi eta Elortza sukaldariak, Juan Mendaroz irratia estaria, Niko Lizeaga, 4 teknikari eta David Asensio herriko futbol jokalariek osatu zuten goizean zehar aurkeztutako eztiak probatu ondoren Julen Sainzen (loreanitzean) eta Josu Barriolaren (lore-bakarrean) ezti irabazleak aukeratu zituen epaimahaikoa.

Eztiarena ez zen izan, ordea, igandean ospatu zen lehiaketa bakarra. Gozogintza lehiaketa egin zen lehenengo aldiz eta Josu Agirrek eraman zuen lehen saria. M^a Angeles Udabe herritarra izan zen bigarren. Argazkigintza lehiaketan, berriz, Felix Rinconek eraman zuen sari nagusia. 3. postua, berriz, Jexux Urkiola usurbildarrentzat izan zen. ■



Giro hotza eta euritsua izan bazen ere jende dexente ibili zen frontoian eta dema plazako postuetan. (JOSU ARANBERRI)



Argazkigintzan 3.postua eskuratu zuen Jexux Urkiola. (JOSU ARANBERRI)



Erletik eratorritako produktuak egon ziren postuetan. (JOSU ARANBERRI)



Ezti lehiaketako epaimahikoan sukaldari famatuak egon ziren besteak beste. (ARANBERRI)



Frontoian argizaiola nola egiten den ikusteko aukera izan zen. (JOSU ARANBERRI)